Marka / Marca 01

eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco

Euskal Herriko Unibertsitatea

Irailaren 23ko 2541/1971 Errege Dekretuak Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako herrialdeetara hedatu zuen abenduaren 18ko 3260/1969 Dekretuaren bidez finkatutako Bilboko Unibertsitatearen Barrutia. Halaber, Unibertsitatearen Barrutia euskal esparru kultural batean berregituratuko zela kontuan hartuta, aipatutako Unibertsitateari baimena eman zitzaion izenaren aldaketa eskatzeko, egokitzat jotzen bazuen. Baimen hori oinarritzat hartuta, Euskaltzaindiarekin eta Euskal Herriko gizarte zein politika arloan garrantzia zuten beste Erakunde batzuekin kontsultatu ondoren -Eusko Kontseilu Nagusiaren Hezkuntza Kontseilaritza barne-, Unibertsitatearen Gobernu Batzordeak proposatu zuen jatorrizko izena aldatzea eta haren ordez Universidad del País Vasco - Euskal Herriko Unibertsitatea jartzea. Aldaketa hori 1980ko otsailaren 25ean baimendu zen, Madrilen.

1981ean, Euskal Herriko Unibertsitatearen sorrera ofizialetik urtebete iragan ondoren, Unibertsitateari Armarri propio bat eman behar zitzaiola adierazi zion garai hartako errektoreak -Gregorio Monrealek- Gobernu Batzordeari; armarri horrek ordura arte erabiltzen zena ordezkatuko zuen, alegia, Bilboko Unibertsitatearen antzinako armarria. Pedro Manterolak -garai hartan Arte Ederretako Fakultatearen dekanoak- egindako txosten bat oinarritzat hartuta, Gobernu Batzordeak hauxe erabaki zuen: Eduardo Chillidari eskatzea nortasun grafiko berriaren sorrera.

Artistak poz-pozik onartu zuen eskaria, eta, hala, euskal unibertsitatearen aldeko kanpainaren logotipoa oinarritzat hartuta, armarri berria sortu eta unibertsitateari eskaini zion, horren truke inolako ordainketarik eskatu gabe.

Ikurrak (armarriak) zientziaren zuhaitza eta euskal foruen erreferentzia uztartu zituen, Iparragirreren Gernikako Arbola ereserki ospetsuaren "eman ta zabal zazu" lemaren bitartez; konbinazio hori guztiz egokia zen euskal unibertsitate gaztearen norabidea definitzeko: euskal historian, kulturan eta gizartean sustraituta, prestakuntza eta ikerkuntza eskaintzea, eta baita zeregin horren fruituak kanporantz zabaltzea ere.

Por Real Decreto 2541/1977, de 23 de septiembre, se hizo extensivo a las provincias de Vizcaya, Álava y Guipúzcoa el Distrito de la Universidad de Bilbao fijado por el Decreto 3260/1969, de 18 de diciembre, al tiempo que se autorizaba a dicha Universidad para que, si lo estimase conveniente su Junta de Gobierno, pudiese solicitar el cambio de denominación, atendiendo a la nueva reestructuración de su distrito, en un marco culturalmente vasco. En base a tal autorización la Junta de Gobierno de la Universidad de Bilbao, tras consulta llevada a cabo con la Real Academia de la Lengua Vasca y con diversos Organismos de significación social y política del País Vasco, incluida la Consejería de Educación del Consejo General Vasco, elevó propuesta de cambio de denominación, por el de Universidad del País Vasco - Euskal Herriko Unibertsitatea. Esto se autorizó en Madrid, a 25 de febrero de 1980.

En 1981, un año después de la creación oficial de la Universidad del País Vasco, el entonces rector Gregorio Monreal expuso ante la Junta de Gobierno la necesidad de dotar a la nueva Universidad de un escudo propio que supliera al de la Universidad Autónoma de Bilbao, que se seguía todavía utilizando. Basándose en un informe elaborado por Pedro Manterola, a la sazón decano de la Facultad de Bellas Artes, la Junta de Gobierno decidió encargar a Eduardo Chillida la confección de una nueva identidad gráfica.

El artista aceptó encantado y, basándose en el logo de la campaña pro universidad vasca, elaboró y donó el escudo, sin pedir ningún tipo de compensación pecuniaria a la universidad.

La combinación del Árbol de la Ciencia y la referencia a los fueros vascos, que se establecía a través del lema “eman ta zabal zazu” del popular himno Gernikako Arbola de Iparraguirre, no podía ser más acertada para definir el rumbo de la joven universidad vasca: enraizada en la historia, la cultura y la sociedad vascas, prestar servicios de formación e investigación, así como propagar hacia el exterior todos los frutos de esta labor.

1982an, Eduardo Chillida artistak gaur egungo ikurra egin zuen Euskal Herriko Unibertsitatea-rentzat. Euskal Herriko Unibertsitatearen Estatutuen I. Idazpuruko 10. artikuluan - Estatutuak martxoaren 18ko 70/1985 Dekretuaren bidez onartu ziren- hauxe ezarri zen: "Euskal Herriko Unibertsitatearen Armarria errepresentazio alegorikoa azaltzen du, goialdean "eman ta zabal zazu", behe-ezkerraldean "Universidad del País Vasco" eta behe-eskuinaldean "Euskal Herriko Unibertsitatea" leloak dituelarik.

En 1982, el artista vasco Eduardo Chillida creó para la Universidad del País Vasco - Euskal Herriko Unibertsitatea el símbolo actual. En el artículo 10, Título I, de los Estatutos de la Universidad del País Vasco - Euskal Herriko Unibersitatea, aprobados por Decreto 70/1985, de 18 de marzo, se establece: El Escudo de la Universidad del País Vasco - Euskal Herriko Unibersitatea es la representación alegórica del Árbol de la Ciencia, con la inscripción en la parte superior del lema "eman ta zabal zazu": en la parte inferior izquierda, "Universidad del País Vasco"; y, en la parte inferior derecha, "Euskal Herriko Unibersitatea".

Bilboko Unibertsitateko antzinako ikurra / Antiguo símbolo de la Universidad de Bilbao

UNIVERSIDAD DE BILBAO

Euskal Herriko Unibertsitateko antzinako ikurra / Antiguo símbolo de la Universidad del País Vasco

UNIVERSIDAD DEL PAIS VASCO EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

| Aurkibidea | Índice |
| --- | --- |


01. Sarrera

02. Hasierako xedapenak

03. Markaren eraketa
- 03.1. Marka
- 03.2. Ikurra
- 03.3. Dimentsio konfigurazioa
- 03.4. Logotipo
- 03.5. Dimentsio konfigurazioa
- 03.6. Lema
- 03.7. Dimentsio konfigurazioa
- 03.8. UPV/EHUren presentzia testuan

04. Marka nagusia
- 04.1. Erabilpena
- 04.2. Dimentsio konfigurazioa
- 04.3. Kolore korporatiboak
- 04.4. Tipografia
- 04.5. Murrizketa probak
- 04.6. Babes zona
- 04.7. Portaera kromatikoa
- 04.8. Erabilera desegokiak

05. Espazio murriztuetarako Marka aldaera
- 05.1. Erabilpena
- 05.2. Dimentsio konfigurazioa
- 05.3. Murrizketa probak
- 05.4. Babes zona

06. Zigilu erako Markaren aldaera
- 06.1. Erabilpena
- 06.2. Dimentsio konfigurazioa
- 06.3. Murrizketa probak
- 06.4. Babes zona

07. Beste marka batzuekin batera erabiltzea

08. Marka irizpidea atzerriko hartzaileentzat

01. Introducción

02. Disposiciones preliminares

03. Composición de la Marca
- 03.1. Marca
- 03.2. Símbolo
- 03.3. Configuración dimensional
- 03.4. Logotipo
- 03.5. Configuración dimensional
- 03.6. Lema
- 03.7. Configuración dimensional
- 03.8. Presencia de la UPV/EHU en texto

04. Marca principal
- 04.1. Uso
- 04.2. Configuración dimensional
- 04.3. Colores corporativos
- 04.4. Tipografía
- 04.5. Pruebas de reducción
- 04.6. Zona de protección
- 04.7. Comportamiento cromático
- 04.8. Usos incorrectos

05. Variante de la Marca para espacios reducidos
- 05.1. Uso
- 05.2. Configuración dimensional
- 05.3. Pruebas de reducción
- 05.4. Zona de protección

06. Variante de la Marca a modo de sello
- 06.1. Uso
- 06.2. Configuración dimensional
- 06.3. Pruebas de reducción
- 06.4. Zona de protección

07. Convivencia con otras marcas

08. Criterio de Marca para receptores extranjeros

## 01. Sarrera

Gaur egun, 2003ko abenduaren 23ko Estatutuen 8. artikuluak hauxe du zehaztua:

1. Unibertsitatearen izen ofiziala "Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea" da edo, laburtuta, UPV/EHU.

2. UPV/EHUren armarri ofiziala Jakituriaren Zuhaitzaren alegoriazko irudia da, Eduardo Chillidak egina. Goiko aldean "eman ta zabal zazu" leloa dauka; beheko aldean, ezkerrean, "Universidad del País Vasco" eta, eskuinean, "Euskal Herriko Unibertsitatea".

3. Gobernu Kontseiluak arautuko du unibertsitatearen izena, armarria, zigilua eta gainerako ikurrak nola erabili behar diren. UPV/EHUkoak ez diren pertsonek edo erakundeek, hots, Estatutuon Eranskinean agertzen ez direnek ezin izango dituzte erabili unibertsitatearen izena, Zigilua, Armarri Ofiziala eta Ikurrak, baldin eta Errektoreak horretarako baimena ematen ez badie beren-beregi.

## 01. Introducción

Actualmente, en el artículo 8 de los Estatutos del 23 de diciembre de 2003, se concreta:

1. La denominación oficial de la Universidad es "Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea" o, de manera abreviada, UPV/EHU.

2. El escudo oficial de la UPV/EHU, creado por Eduardo Chillida, es la representación alegórica del Árbol de la Ciencia con la inscripción en la parte superior del lema "eman ta zabal zazu"; en la parte inferior izquierda, "Universidad del País Vasco" y, en la parte inferior derecha, "Euskal Herriko Unibertsitatea".

3. El Consejo de Gobierno regulará el uso de la denominación de la Universidad, de su Escudo, de su Sello y demás emblemas. Las personas o entidades ajenas a la UPV/EHU que no consten en el Anexo de estos Estatutos no podrán hacer uso de su denominación, Sello, Escudo Oficial y emblemas, salvo autorización expresa del Rector.

Nortasun Eskuliburu honen asmoa ikurraren jatorrizko balioa berreskuratzea da, bai artistaren lanak merezi duen begiruneagatik eta bai UPV/EHUren nortasuna zorroztasunez gordetzeko nahiagatik.

Denboran zehar, eta haren erabileraren eraginez, Eduardo Chillidak sortutako ikurra nolabait hondatu da bere irudikapen grafikoan. Izan ere, Zientziaren Zuhaitzaren forma kurbadunak angelu zuzen bihurtu dira arian-arian, eta, beraz, hasierako kontzeptu eta ikurretik urrundu dira gero eta gehiago.

Beraz, beharrezkoa da nortasuna sendotzea, ezaugarri hauei eutsiz:

· Nortasunak bereiztua eta ezin kopiatuzkoa izan behar du.
· Iraunkorra izan behar du, denbora aldetik.
· Ospea sortu behar du.

Eskuliburu honek lagungarria izan nahi du unibertsitateko pertsonalarentzat eta berarekin zerikusia duten beste eragile batzuentzat, kalitate handiko marka-nortasun bisual iraunkor bat mantentzeko, bai publiko objektiboari begira eta bai gizarte osoari begira.

Este Manual de Identidad pretende recuperar el valor original del símbolo, no sólo por respeto a la labor del artista, sino también como modo de preservar, con rigor, la identidad de la UPV/EHU.

A lo largo del tiempo y de su uso, el símbolo creado por Eduardo Chillida ha sufrido cierto deterioro en su representación gráfica. Las formas curvas de su Árbol de la Ciencia se han ido transformando en ángulos rectos, distanciándose poco a poco del símbolo y concepto inicial.

Se trata de afianzar una identidad:

· Diferenciada y no copiable
· Sostenible en el tiempo
· Generadora de reputación

Este manual ha sido desarrollado para ayudar al personal de la universidad y otros agentes implicados a mantener una identidad de marca visual constante y de alta calidad, de cara al público objetivo y al conjunto de la sociedad.

Chillidak egindako Marka / Marca realizada por Chillida

Hondatua / Deteriorado




Jatorrizkoa / Original



Eskuliburu honek Euskal Herriko Unibertsitatearen irudi bisuala zehazten du, erakunde honek igortzen duen mezu bisual oro ezartzerakoan kontsultatu behar diren arauak aditzera emanez. Eskuliburu honek barne hartzen dituen arauak erabat errespetatzea da irudiaren aplikazio zorrotzaren berme bakarra, hau da, jatorrizko irudiaren narriadura eragozteko modu bakarra.

Marka ondare ukiezina da, Unibertsitate osoari dagokiona, eta erabat lotuta dago ospe instituzionalarekin. Hortaz, markaren tratamendua zorroztasunez zaintzeak eragin nabaria izango du unibertsitateren epe luzeko arrakastan, eta baita beraren kalitatezko eskaintza errotzearekin ere.

· Markari buruzko 01. atal honek UPV/EHUren Erakunde Nortasunaren Eskuliburua osatzen duten hurrengo atalen garapenaren oinarriak jartzen ditu, hau da, Paperezko agirien, Komunikazioaren, Seinaleen, Web orrialdeen eta -oro har- beste edozein euskarriren oinarriak.

Geroago, UPV/EHUren baitan sor litezkeen marka berrien erabilera ere arautuko da (adibidez: EHU Denda, EHU Gune, EHU Press...).

· Marka aplikatzerakoan edo beste marka batzuekin batera erabiltzerakoan sor litezkeen zalantzak edo desadostasunak Unibertsitate Zabalkuntzako Errektoreordetzak argitu eta konponduko ditu, Errektorearen ordezkari gisa.

Araudi hau onartu aurretik existitzen ziren identifikazio-ikur tradizionalak erabiltzeko baimena Gobernu Kontseiluak emango du.

El presente Manual determina la imagen visual de la Universidad del País Vasco, representando las normas que deben ser consultadas para la implantación de todo mensaje visual emitido por esta entidad. El absoluto respeto a las normas que se incluyen en este manual constituye la única garantía de que la imagen se aplique rigurosamente, impidiendo el deterioro de la imagen original.

La marca es un patrimonio intangible que atañe a toda la universidad y que tiene una correspondencia indisoluble con la reputación institucional. Es decir, el cuidado estricto del tratamiento de la marca influirá notablemente en el éxito de la universidad a largo plazo y su asentamiento como una oferta de calidad.

· Este apartado número 01 referente a la Marca sienta las bases para el desarrollo de los posteriores apartados que componen el Manual de Identidad Corporativa de la UPV/EHU que comprenden: Papelería, Comunicación, Señalética y Web, y en general cualesquiera otros soportes.

Posteriormente se regulará el uso de las posibles nuevas marcas que vayan surgiendo dentro de la UPV/EHU (ejemplos: EHU Denda, EHU Gune, EHU Press…).

· Cualquier situación de duda o conflicto que se pudiera originar en la aplicación o convivencia de la Marca con otras marcas, se dirimirá desde el Vicerrectorado de Extensión Universitaria por delegación del Rector.

La autorización para el uso de símbolos tradicionales de identificación, existentes con anterioridad a la aprobación del presente reglamento, se realizará por el Consejo de Gobierno.

## Markaren eraketa
## Composición de la Marca

## 03.1. Marka

UPV/EHUren Markak hiru osagai ditu: ikurra, logotipoa eta lema. Osagaien antolaera eta haien arteko proportzio-erlazioak eskuliburu honetan zehaztutakoaren arabera mantendu behar dira. Marka edozein modutan desitxuratzea kaltegarria izango litzateke berarentzat, eta beraz, UPV/EHUren irudi osoarentzat.

## 03.1. Marca

La Marca de la UPV/EHU está compuesta por tres elementos: el símbolo, el logotipo y el lema. Su disposición, así como las relaciones proporcionales entre los distintos elementos, deben mantenerse tal y como se especifican en el presente manual. Toda adulteración de la Marca sería en perjuicio de la misma, y por consiguiente, de toda la imagen de la UPV/EHU.

Logomarka / Logomarca

eman ta zabal zazu — Lema / Lema

Ikurra / Símbolo

Universidad del País Vasco — Euskal Herriko Unibertsitatea — Logotipoa / Logotipo

| Ikurra / Símbolo | Logotipoa / Logotipo | Lema / Lema |
|---|---|---|
| | Universidad del País Vasco · Euskal Herriko Unibertsitatea | eman ta zabal zazu |

## 03.2. Ikurra

Euskal Herriko Unibertsitatearen sinboloa Eduardo Chillidak sortu zuen eta Zientziaren Zuhaitza irudikatzen du. Egilearen hitzetan, “zuhaitz bat eta bere fruitua”, UPV/EHUren balore nagusienetako bati erreferentzia eginez.

Sinbolo hau aldaezina da bere forma eta kontzeptuan, artistaren lana eta UPV/EHUren nortasuna une oro bermatu behar baitira.

## 03.2. Símbolo

El símbolo de la Universidad del País Vasco fue creado por Eduardo Chillida y representa el Árbol de la Ciencia. En palabras del propio autor, "un árbol y su fruto", haciendo referencia a uno de los principales valores de la UPV/EHU.

Este símbolo es inalterable, tanto en su forma como en su concepto, ya que se debe preservar en todo momento la obra del artista, así como la identidad de la UPV/EHU.

## 03.3. Dimentsio konfigurazioa

Sinboloaren irudikapenak ondorengo kuadrikulan zehazten den proportzio eskema jarraitu beharko du, “X” balioaren arabera.

## 03.3. Configuración dimensional

La representación del símbolo debe seguir el esquema de proporciones que se detalla en la siguiente cuadrícula, en función del valor “X”.



## 03.4. Logotipo

UPV/EHUren logotipoa “Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea” izendapen elebidunak osatzen du. Gaztelaniazko izendapena ezkerrean kokatzen da, eta euskarazkoa, eskubian. Erabilitako tipografia Helvetica da.

2003ko abenduaren 23ko Estatutuen 7. artikuluaren arabera:

7. artikulua

1. UPV/EHUko hizkuntza ofizialak euskara, Euskal Herriaren berezko hizkuntza, eta gaztelania dira.

2. UPV/EHUk arreta berezia eskainiko die euskal kulturari eta euskarari, esparru zientifiko eta teknikoan nagusiki.

3. UPV/EHUk euskararen erabilera normala bultzatuko du unibertsitateko irakaskuntzan, ikerketa zientifikoan eta administrazio eta zerbitzuetako jardunean. Beharrezko neurriak hartuko ditu horretarako, berdintasun eta kalitate baldintzak errespetatuta.



## 03.4. Logotipo

El logotipo de la UPV/EHU está compuesto por la denominación bilingüe “Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea”, colocándose a la izquierda la denominación en castellano, y a la derecha, la denominación en euskara. La tipografía utilizada es la Helvética.

Según el artículo 7 de los Estatutos de 23 de diciembre de 2003:

Artículo 7

1. El euskera, como lengua propia del País Vasco, y el castellano son las lenguas oficiales de la UPV/EHU.

2. La UPV/EHU prestará particular atención a la cultura vasca y, dentro de ella, al euskera, especialmente en sus aspectos científicos y técnicos.

3. La UPV/EHU favorecerá, en condiciones de igualdad y calidad a través de las medidas oportunas, la normalización del uso del euskera en la enseñanza universitaria, en la investigación científica y en la actividad administrativa y de servicios.

Universidad del País Vasco — Euskal Herriko Unibertsitatea

## 03.5. Dimentsio konfigurazioa

Logotipoaren irudikapenak ondorengo kuadrikulan zehazten den proportzio eskema jarraitu beharko du, “X” balioaren arabera.

## 03.5. Configuración dimensional

La representación del logotipo debe seguir el esquema de proporciones que se detalla en la siguiente cuadrícula, en función del valor “X”.



## 03.6. Lema

UPV/EHUren lema, “eman ta zabal zazu”, “Gernikako Arbola” abestian du bere jatorria eta euskaraz bakarrik agertzen da.

Fruitua ematea eta fruitu hori fruitu gehiago ematen dituen zuhaitz bihurtzea. Ikaskuntzaren eta jakituriaren zikloa.

## 03.6. Lema

El lema de la UPV/EHU, cuyo significado es “da y extiéndelo”, tiene su origen en el himno “Gernikako Arbola”, y se representa sólo en euskara.

Dar fruto y a su vez este fruto convertirse en árbol que da más frutos. Ciclo de aprendizaje y sabiduría.

eman ta zabal zazu

## 03.7. Dimentsio konfigurazioa

Lemaren irudikapenak ondorengo kuadrikulan zehazten den proportzio eskema jarraitu beharko du, “X” balioaren arabera.

## 03.7. Configuración dimensional

La representación del lema debe seguir el esquema de proporciones que se detalla en la siguiente cuadrícula, en función del valor “X”.



## 03.8. UPV/EHUren presentzia testuan

Euskal Herriko Unibertsitatea testuan aipatu behar dugunean, beharrezkoa da beti irizpide berbera erabiltzea.

## 03.8. Presencia de la UPV/EHU en texto

Cuando tengamos que hablar de la Universidad del País Vasco en texto es necesario hacerlo siempre bajo un mismo criterio.

Erabilera desegokia / Uso incorrecto

~~UPV - EHU~~

Euskarazko testua / Texto en euskera

UPV/EHU

Euskal Herriko Unibertsitatea

Gaztelaniazko testua / Texto en castellano

UPV/EHU

Universidad del País Vasco

Euskarazko paragrafoaren adibidea / Ejemplo párrafo en euskera

La Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak ekarpen handiak egiten dizkie ezagutzari eta ikerketari, baita gertakari artistiko berrienari ere. Urteetan aritu izan da bere barruan ondare artistikoa eratzen, eta horren emaitzak garrantzi handia du sorkuntzaren inguruko eztabaidan. Erakusketa honekin unibertsitateak oraingo bilakaerari egin dizkion ekarpenak erakutsi nahi dira, tokiko eta atzerriko artistez eta adituez osatutako epaimahai desberdinek nabarmendutako obra sorta ikusgai jarriz.

Euskal Herriko Unibertsitateak ekarpen handiak egiten dizkie ezagutzari eta ikerketari, baita gertakari artistiko berrienari ere. Urteetan aritu izan da bere barruan ondare artistikoa eratzen, eta horren emaitzak garrantzi handia du sorkuntzaren inguruko eztabaidan. Erakusketa honekin UPV/EHUk oraingo bilakaerari egin dizkion ekarpenak erakutsi nahi dira, tokiko eta atzerriko artistez eta adituez osatutako epaimahai desberdinek nabarmendutako obra sorta ikusgai jarriz.

Gaztelaniazko paragrafoaren adibidea / Ejemplo párrafo en castellano

La Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea hace reconocidas contribuciones al conocimiento y la investigación y también al fenómeno artístico más emergente. A lo largo de todos los años se ha ido forjando en su seno un patrimonio artístico, cuyo resultado es importante en el debate creativo. Con la exposición se intenta llevar a cabo una cata de las aportaciones que ha hecho la universidad al devenir contemporáneo. Una selección formada por una serie de obras que han sido destacadas por los distintos jurados, constituidos por artistas y estudiosos locales y foráneos.

La Universidad del País Vasco hace reconocidas contribuciones al conocimiento y la investigación y también al fenómeno artístico más emergente. A lo largo de todos los años se ha ido forjando en su seno un patrimonio artístico, cuyo resultado es importante en el debate creativo. Con la exposición se intenta llevar a cabo una cata de las aportaciones que ha hecho la UPV/EHU al devenir contemporáneo. Una selección formada por una serie de obras que han sido destacadas por los distintos jurados, constituidos por artistas y estudiosos locales y foráneos.

## Marka nagusia
## Marca principal

# 04. Marka nagusia / 04. Marca principal

## 04.1. Erabilpena

Ondorengo ataletan azalduko diren salbuespenetan izan ezik, ikurra beti logotipoarekin eta lemarekin batera erreproduzitu behar da. Erabilpen honek besteekiko lehentasuna edukiko du.

## 04.1. Uso

Salvo excepciones que se detallarán en apartados posteriores, el símbolo ha de reproducirse siempre junto al logotipo y el lema. Este uso tendrá preferencia respecto a cualquiera de los otros posibles.

eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco

Euskal Herriko Unibertsitatea

## 04.2. Dimentsio konfigurazioa

Markaren irudikapenak ondorengo kuadrikulan zehazten den proportzio eskema jarraitu beharko du, “X” balioaren arabera.

## 04.2. Configuración dimensional

La representación de la Marca debe seguir el esquema de proporciones que se detalla en la siguiente cuadrícula, en función del valor “X”.



## 04.3. Kolore korporatiboak

UPV/EHUren nortasunaren koloreak Pantone Process Black eta zuri kolorea dira. Ondoren azaltzen dira kuatrikomian eta RGB-n dituzten baliokideak.

## 04.3. Colores corporativos

Los colores corporativos de la identidad de la UPV/EHU son el color Pantone Process Black y el color blanco. A continuación se detallan sus equivalentes en cuatricromía y RGB.

eman ta zabal zazu
Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

eman ta zabal zazu
Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

Beltza / Negro

| | Pantone Kodea<br>Código Pantone | Kuatrikromia<br>Cuatricromía | RGB |
|---|---|---|---|
| (black) | Pantone Process Black C | 0 C<br>0 M<br>0 Y<br>100 K | Red: 0<br>Green: 0<br>Blue: 0 |

Zuria / Blanco

| | Pantone Kodea<br>Código Pantone | Kuatrikromia<br>Cuatricromía | RGB |
|---|---|---|---|
| (white) | | 0 C<br>0 M<br>0 Y<br>0 K | Red: 100<br>Green: 100<br>Blue: 100 |

## 04.4. Tipografia

Logotipoan nahiz leman erabili beharreko tipografia familia Helvetica da. Lema minuskulatan idatzi beharko da eta logotipoak, inizialetan bakarrik izango ditu maiuskulak.

## 04.4. Tipografía

La familia tipográfica a emplear tanto en el logotipo como en el lema es la Helvética. El lema deberá ir en minúsculas y el logotipo tendrá mayúsculas solamente las iniciales.

Helvética

a b c d e f g h i j k l m n ñ o p q r s t u v w x y z

A B C D E F G H I J K L M N Ñ O P Q R S T U V W X Y Z

1 2 3 4 5 6 7 8 9 ¡ ! ¿ ? $ & ( . , : ; )

## 04.5. Murrizketa probak

Markaren gehienezko murrizketa bat finkatu da, bere irakurgarritasuna eta ulergarritasuna bermatzeko.

## 04.5. Pruebas de reducción

Se establece una reducción máxima de la Marca para preservar en todo momento su correcta legibilidad y comprensión.

eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco | Euskal Herriko Unibertsitatea

eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco | Euskal Herriko Unibertsitatea

eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco | Euskal Herriko Unibertsitatea

15 mm

35 mm

## 04.6. Babes zona

Markaz kanpoko elementurik inolaz ere inbaditu behar ez duen babes zona bat ezarri da, honela markaren irakurketa eta identifikazio zuzena bermatzeko.

## 04.6. Zona de protección

Se establece una zona de protección de la Marca, que ningún elemento externo a ella debe invadir, para poder garantizar así, su correcta lectura e identificación.



## 04.7. Portaera kromatikoa

Fondo desberdinen gaineko Markaren portaera, hauen iluntasun mailaren arabera izango da. Marka beltzean ikusi ahal izateko fondo ilunegia baldin bada bakarrik, Marka zuriz irudikatuko da. Beste kasu guztietan, Marka bere jatorriko beltzean izango da.

## 04.7. Comportamiento cromático

El comportamiento de la Marca sobre diversos fondos, viene marcado por el grado de oscuridad de éstos. Únicamente si el fondo es demasiado oscuro como para visualizar la Marca en negro, la Marca irá en blanco. En el resto de los casos, la Marca se reproducirá en su color negro original.

Fondo ilunak / Fondos oscuros

Fondo argiak / Fondos claros

Fondo neutroak / Fondos neutros

## 04.8. Erabilera desegokiak

1. Logotipoaren inguruan ezarritako "babes zonan" ezingo da bestelako elementurik azaldu.

2. Tipografia atalean adierazitako tipografia besterik ez da erabiliko.

3. Ikurra eta hitzezko adierazpenaren arteko konbinaketak Eskuliburu honetan adierazten diren elementuen arteko proportzioak mantendu beharko ditu.

4. Portaera kromatikoak zuzena izan behar du.

## 04.8. Usos incorrectos

1. Ningún elemento podrá invadir la "zona de protección" que se establece alrededor del logotipo.

2. La única tipografía que se empleará será aquella especificada en el apartado de Tipografía.

3. La combinación entre el símbolo y la expresión verbal deberá mantener la proporción entre elementos establecida en este Manual.

4. El comportamiento cromático debe ser adecuado.

1

2

3

4

4

4

## Espazio murriztuetarako Marka aldaera
Variante de la Marca para espacios reducidos

## 05. Espazio murriztuetarako Marka aldaera

### 05.1. Erabilpena

Aukera hau azaltzen da, Marka irudikatzeko espazio horizontala murriztua denean erabiltzeko bakarrik. Honetarako, logotipoak “UPV/EHU” siglak izango ditu, beti maiuskulatan idatziak agertuko direlarik.

Goian adierazitako kontuetan izan ezin, Markaren aldaera honek lehen adierazitako arauak bete behar ditu zorroztasunez.

## 05. Variante de la Marca para espacios reducidos

### 05.1. Uso

Se plantea esta variante, sólo para ser utilizada en caso de que el espacio horizontal de que dispone la Marca para su reproducción sea reducido. Para ello, integra en el logotipo las siglas “UPV/EHU”, que deberán ser escritas siempre en mayúsculas.

Salvo en las cuestiones arriba especificadas, esta variante de la Marca deberá seguir rigurosamente la normativa anteriormente expuesta.

Aurrekoa / Anterior

eman ta zabal zazu

~~U.P.V. E.H.U.~~

Oraingoa / Actual

eman ta zabal zazu

UPV EHU

## 05. Espazio murriztuetarako Marka aldaera

## 05. Variante de la Marca para espacios reducidos

### 05.2. Dimentsio konfigurazioa

Markaren aldaera honen irudikapenak ondorengo kuadrikulan zehazten den proportzio eskema jarraitu beharko du, “X” balioaren arabera.

### 05.2. Configuración dimensional

La representación de esta variante de la Marca debe seguir el esquema de proporciones que se detalla en la siguiente cuadrícula, en función del valor “X”.



## 05. Espazio murriztuetarako Marka aldaera

## 05. Variante de la Marca para espacios reducidos

### 05.3. Murrizketa probak

Markaren aldaera honen gehienezko murrizketa bat finkatu da, bere irakurgarritasuna eta ulergarritasuna bermatzeko.

### 05.3. Pruebas de reducción

Se establece una reducción máxima de esta variante de la Marca para preservar en todo momento su correcta legibilidad y comprensión.

eman ta zabal zazu

UPV EHU

eman ta zabal zazu

UPV EHU

eman ta zabal zazu

UPV EHU

13,6 mm

18,2 mm

## 05.4. Babes zona

Markaz kanpoko elementurik inolaz ere inbaditu behar ez duen babes zona bat ezarri da, honela markaren aldaera honen irakurketa eta identifikazio zuzena bermatzeko.

## 05.4. Zona de protección

Se establece una zona de protección de esta variante de la Marca, que ningún elemento externo a ella debe invadir, para poder garantizar así, su correcta lectura e identificación.



## Zigilu erako Markaren aldaera
## Variante de la Marca a modo de sello

## 06. Zigilu erako Markaren aldaera

### 06.1. Erabilpena

Erakundearen osagarri grafiko gisa UPV/EHUren zigilu bat sortu da, ikurra eta lema soilik dituena.

Zigilu horrek identifikadore moduan funtzionatuko du hainbat euskarritan (paperezko agiri erantsietan, informazio-orrietan, eta abar), baina beti osatu beharko da UPV/EHUren logotipoaren presentziarekin.

Adibidez: liburu batek zigilua izan dezake bere orrialde guztietan, baina atzeko azalean UPV/EHUren logotipoa izan beharko du.

Merchandising-eko piezetan, zigilua "bakarrik" ager daiteke kamiseta, katilu, aterki edo beste elementu batzuetan, baina UPV/EHUren logotipoa produktu horien etiketan, bildukinetan edo paketean agertu beharko du.

## 06. Variante de la Marca a modo de sello

### 06.1. Uso

Como complemento gráfico corporativo se ha creado un sello de la UPV/EHU, que sólo contiene el símbolo y el lema.

Este sello actuará como identificador en diferentes soportes (papelería adjunta, folletos, etc…) pero siempre deberá complementarse con la presencia del logotipo de la UPV/EHU.

Un ejemplo; un libro puede llevar el sello en todas sus páginas, pero en la contraportada deberá ir el logotipo de la UPV/EHU.

En las piezas de merchandising, si bien el sello puede ir “sólo” en camisetas, tazas, paragüas u otros elementos, el logotipo de la UPV/EHU deberá estar presente en la etiqueta de dichos productos, en el packaging, o en los envoltorios.

eman ta zabal zazu

## 06.2. Dimentsio konfigurazioa

Markaren aldaera honen irudikapenak ondorengo kuadrikulan zehazten den proportzio eskema jarraitu beharko du, “X” balioaren arabera.

## 06.2. Configuración dimensional

La representación de esta variante de la Marca debe seguir el esquema de proporciones que se detalla en la siguiente cuadrícula, en función del valor “X”.



## 06.3. Murrizketa probak

Markaren aldaera honen gehienezko murrizketa bat finkatu da, bere irakurgarritasuna eta ulergarritasuna bermatzeko.

## 06.3. Pruebas de reducción

Se establece una reducción máxima de esta variante de la Marca para preservar en todo momento su correcta legibilidad y comprensión.

9,5 mm

11,6 mm

## 06.4. Babes zona

Markaz kanpoko elementurik inolaz ere inbaditu behar ez duen babes zona bat ezarri da, honela markaren aldaera honen irakurketa eta identifikazio zuzena bermatzeko.

## 06.4. Zona de protección

Se establece una zona de protección de esta variante de la Marca, que ningún elemento externo a ella debe invadir, para poder garantizar así, su correcta lectura e identificación.



## Beste marka batzuekin batera erabiltzea
## Convivencia con otras marcas

Hainbat erakunderekin sinatutako lankidetza hitzarmenen eraginez, UPV/EHUren Marka beste marka batzuekin batera erabili behar denean, haren aplikazioaren azkeneko irizpidea Unibertsitate Zabalkuntzako Errektoreordetzak ezarriko du, Errektorearen ordezkari gisa.

Publizitate-aplikazioetan beste marka batzuekin batera erabiltzeari dagokionez, ikus eskuliburu honetako 3. liburukian horretaz esaten dena.

Arau gisa ezartzen da beste markek ez dutela gainditu behar UPV/EHUren Markaren aplikazioaren gehieneko altuera, ezta gehieneko zabalera ere; ez dute inoiz ere UPV/EHU Markak baino esparru handiagorik hartu behar, berari gailenduz.

Debido a convenios de colaboración con diferentes Instituciones, siempre que la Marca de la UPV/EHU tenga que convivir con otras marcas, el criterio último de aplicación de la misma se dirimirá desde el Vicerrectorado de Extensión Universitaria por delegación del Rector.

Para convivencias en aplicaciones publicitarias, ver el Tomo 3 de este Manual.

Se establece como norma que las otras marcas no deben superar ni la altura máxima ni el ancho máximo de la aplicación de la Marca de la UPV/EHU, y que nunca deberán predominar sobre la Marca de la UPV/EHU.

eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco

Euskal Herriko Unibertsitatea

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO
INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

Gehieneko altuera
Altura máxima

EUSKO JAURLARITZA
INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO

Gehieneko zabalera / Anchura máxima

## Marka irizpidea atzerriko hartzaileentzat
## Criterio de Marca para receptores extranjeros

## 08. Marka irizpidea atzerriko hartzaileentzat

Markaren osotasuna eta beraren bidez transmititu nahi diren balioak gordetzeko xedez, ez dugu inola ere gomendatzen hizkuntza gehiagorik sartzea Markaren eremuaren barnean. Helburua beste herri batzuekin komunikatzea denean, mezua hartu behar duen herriaren hizkuntza erabiliko dugu, baina beti markaren eremutik kanpo.

Ikus 22. puntua, Paperen Eskuliburuan.

## 08. Criterio de Marca para receptores extranjeros

Con el fin de preservar la integridad de la Marca y los valores que ésta debe transmitir, desaconsejamos totalmente la inclusión de terceros idiomas dentro del espacio de la Marca. Cuando el objetivo sea la comunicación con otros países, utilizaremos el idioma del país al que se dirige el mensaje, pero siempre fuera del espacio de la marca.

Ver punto 22, en el Manual de Papelería.

eman ta zabal zazu

~~Universidad del País Vasco~~
~~Euskal Herriko Unibertsitatea~~
~~University of Basque Country~~